

## Aurren eta nerabeen hizkuntza-erabilera eskolaz kanpoko ekintzetan. EAE

### Definizioa

LMH4ko ikasleak (10 urte inguruko haurrak) eta DBH2koak (14 urte inguruko nerabeak) eskolaz kanpoko ekintzetan zein hizkuntzatan aritzen diren jasotzen du adierazle honek.

### Hedadura

EAE

### Aldagaiak eta kategoriak

- Beti euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago
- Bietan berdin
- Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago
- Beti gaztelaniaz
- Beste hizkuntza batean
- Erabilera orokorra: erabilera-tasa esleitu

Erabilera-tasa esleitu inkestak emandako erantzunen ugaritasuna laburtzeko eta balio numerikoa emateko egiten den kalkulua da. Kasu honetan aldagai honetan ikasleek emandako sei erantzun posibleak hartu eta honako erabilera-balio hauek esleitu zaizkie:

- Beti euskaraz = %100 euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago = %75 euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz beste = %50 euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz baino gutxiago = %25 euskaraz
- Beti gaztelaniaz = %0 euskaraz
- Beste hizkuntza batean = %0 euskaraz

Honen bidez, 0tik 100erako eskalan batez besteko datua zein den ezagutzeko aukera dago, sei kategorietako informazioa bakarrean laburtuz. Hizkuntza-erabilerari buruzko ikuspegi orokor bat izatea ahalbidetzen du horrek.

### Azpi-adierazleak (gurutzaketak)

- Maila:
  - Lehen Hezkuntzako 4. maila
  - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila
- Sexua:
  - Neska
  - Mutila

Iturria(k)	
ARRUE PROIEKTUA	
<b>Iturriaren ezaugarriak</b>	<p>2004tik aurrera Soziolinguistika Klusterrak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak abian jarritako ikerketa da. 2010. urtean ISEI-IVEI erakundearekin egindako elkarlanerako akordioarekin Ebaluazio Diagnostikoan berariaz integratutako galderen bitartez Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasle guztien datuak biltzen dira. Ikasleek aitorturiko datuak dira, beraz, ikerketak eskaintzen dituenak.</p> <p>Ikerketa honen helburua Euskal Autonomi Erkidegoko ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabilera nolakoa den aztertzea da.</p>
<b>Eragiketaren arduraduna</b>	Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta Soziolinguistika Klusterra.
<b>Lehenengo datua eta maiztasuna</b>	<p><b>Lehenengo datua:</b> 2011n egin zen lehen aldiz.</p> <p><b>Maiztasuna:</b> Bi galdetegi mota dira, bata laburra, bi urtean behin egiten dena, eta bestea osatuagoa, lau urtean behin egiten dena. 2011n, 2013an eta 2015ean eskolaz kanpoko jarduerari buruzko informazioa jaso da, 2017an ez.</p>
Informazio osagarria	
<b>Argitalpenak eta txostenak</b>	<a href="https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2013/03/e_erabilera_web.pdf">https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2013/03/e_erabilera_web.pdf</a>
<b>Galdesorta(k)</b>	Argitaratzeke